



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/03/09

BILERA ZENBAKIA: 3

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Maddi, Erkuden, Tere, Eneritz, Mari, Javi, Aitor, Maite


EGINDAKO LANAREN LABURPENEA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. JUBILATU ELKARTEA NOLA INDARTU:

Hiru lan ildo hartu dira.

- Jubilatu elkarteko bazkideak egitea: Udalak etxeetara gutunak bidali zituen herritarrak animatzen eta 6 bazkide berri lortu dira. Jubilatu elkartekoak oso pozik daude emaitza honekin.
- Jubilatu elkarte nola indartu: egiten ari diren ekintza kopurua oso ona dela eta alde horretatik ekintza gehiago egitea ez da ikusten. Ikastaroak, irteerak, ibilaldiak, ekintza aldetik oso maila onean daudela ikusten da. Agian jubilatu elkarte beraren erabilera bultzatzeko neurriren bat hartzea pentsatzen ari dira; bazkideak lokala bazkari, merienda, afari etab egiteko, elkarte arrunta moduan erabiltzea (oraindik aztertzen eta erabaki gabe)
- Tipi tapa indartzea: Gimnasia ikastaroak geroz eta harrera hobea izaten ari da, berez apirilean amaitzen bazen ere ekaina arte edo luzatzeko egon daitezkeen aukerak aztertu beharko dira (dirulaguntza apirilean amaitzen da). Bestetik gimnasia tipi tapa paseoen osagarri izan behar duela irizten da inolaz ere ez ibilaldiak ordeztuko. Ongizateko taldeak prestatuta proposamen txosten bat aurkeztu dute, tipi tapa indartzeko proposamenak 4 ildotan banatuta:
 - Gimnasia ikastaroa indartu. (guraso elkarteari aztertzeko eskatu zaio, haurrak eta jubilatutako elkarrekin oinez ibiltzea irteera aztertzeko)
 - Oroimena sustatzeko ikastaro eta hitzaldiak (AFAGIKOEKIN hitzartuta daude alzheimerraren inguruko hitzaldia (maiatzak 10) eta memoria tailerra (maiatzak 24 eta 31), beste proposamen batzu aztertzeko daude.
 - Osasuna hobetzeko baliabideak: Elikadura eta gaixotasunak hitzaldia Garbiñe Etxanizekin lotuta dago (apirilak 26). Dueloaren inguruko hitzaldia, guraso



elkartekoak ere horrelako zerbait egitekotan zirenez elkarrekin moldatzen saiatuko dira. Koro medikuarekin batera ere zerbait egin daitekeen pentsatzen ari gara.

- Herriko beste jendeekin harremana izan dezaten bultzatu: gimnasiaren ondoren denak buelta bat eman edo jubilatuta elkartean tertuliatxoa, ongizate taldetik boluntario taldea, joste tailerrera animatu, astearteko tipi tapara animatu)

2. HURRENGO HILABETEKO KULTUR EKINTZAK:

- Martxoaren 16an ongizateetik pelikula emanaldiak hasten dira.
- Apirilaren 11-17 kirol astea.
 - Apirilak 12. Tipi tapa herrikoia jubilatua eta herritarrekin batera. Ibilaldi txiki bat egingo dute eta gero gazteak agian mokadutxo bat edo zerbait antolatu.
 - Apirilak 13, asteazkena. Pilotariak eskolara hitzaldia ematera joango dira. Nor etorriko den martxoaren amaieran esango digute.
 - Apirilak 15, ostirala. Alex Txikon hitzaldia.
 - Apirilak 17, igandea. Gazteek mendi irteera antolatu dute, Itsasondo-Arama- Arama hilerria- Abali- Altzagarate- Altzaga- Sorabilla- Itsasondo

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kultura batzordea, aurrekontua aztertu erabilgarri dagoen dirua zehazteko.	Hurrengo herri bizitzaren bilea.	Amaia eta kultura batzordea.
Gure esku dago ekimena nola bultzatu	Hurrengo bilerako gai nagusia	Ekaitz
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, Apirilaren 6an egingo dugu.		